



Artzape

getariarron topagunea

2018ko martxoa

180. zbk

"BALENCIAGA. MODA ETA ONDAREA" PENTSIODUNAK, ORAINGO ETA GEROKO ESKARIAK



Astillero

ANTONIA IRIBAR

Erretegia



Parrillan
espezialitatea

Kaia, 1

20808 GETARIA

Tel.: 943 14 04 12



barne diseinua
interiorismo

Garbiñe Ibarbia Gamboa

Colegiado N° 5158/158

- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa

Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4

Tel. 943 140 409

info@katrapona.com

www.katrapona.com



KATRAPONA



HARRALDE
GETARIA NAGUSIA, 17
★ 14 07 04

portu
nagusia 12

20808 getaria

943140285



OBRADOREA eta DENDA

Tel. +34 943 140 993

www.maisor.com
GETARIA

ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO



GETARIAKO PRODUCTS EXPRESSION

GETARIA - ERRETEGIA - TRANCUNA - ANTIGUA - MENTREZKA - ARDORA

KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13

WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES



KAIA KAIPE

J A T E T X E A R E S T A U R A N T E

Arnoa generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria

Herrerieta, 12

20808 GETARIA

Tel.: 943 140 120

Mobila: 652 775 061

E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT

MAESTROS CONSERVEROS

KALE NAGUSIA 22

GETARIA

943 14 06 24

tienda.getaria@salanort.com

Síguenos en FACEBOOK

www.salanort.com





8,14... Martxoak 8



22-24 Balenciagako erakusketa berria

4-5	Zuen txokoa
6	Elan Euskadi
7	Eskubide Sozialen Karta
8	Artzapetik begira: Eider Iribar
9	Historiaren katebegiak
10	Harritarten txutxupeka
11	Urritza Aisialdi Taldea
12	Inglix pitinglix
13	Getariako hitza eta Txikiegia agian
14	Iritzia: Uxue Alberdi
15	Salberak Itsaskabrari
16	Toponomia
18-21	Elkarriketa: Getariako pentsiodunak
22-24	Erreportajea: "Balenciaga. Moda eta ondarea"
26	Klik batean
27	Agenda

2018ko martxoak

180. ikk

Artzape

getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkarte
 [Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
 [Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
 [Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz, Joseba Fuentes eta lure Eizagirre.

[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.

[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoia Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.

[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.

[Inprimategia] Gertu (Oñati)

[Tirada] 365 ale

[Lege gordailua] SS-504/01

[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAK ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAK eta EUSKO JAURLARITZAK diruz lagundutako aldizkaria.



Getariako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA

Atal hau herritar, talde zein elkarteek zuen ekarpenak egiteko da. Zuen iritziz, gutun, argazki, zorian-agur (bazkide ez direnek 4€), esker on edota agur hitzak argitaratu ditzakezue. Testuek gehienez 180 hitz izan ditzakete eta ez da irainik onartuko. Ekarpeneak jasotzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ez da bermatzen egun hori baino beranduago jasotako lanak argitaratzea. Testuak artzape@topagunea.com helbide elektronikora bidali edo Txeruko postontzian utzi daitezke.

"Juanita Markos"

Juana Isasti Otamendi entzunda gutxi jakingo dute nor den, baino *Juanita Markos* esandakoan denoi datorkigu bera gogora. Behin halaxe zioen batek: "*Juanita Markos* ezagutzen ez badezu, ez zera getariarra!".

Markos eta Inaxiren alaba zaharrena izan zen Juanita. Garai haietarako nahikoa zahar ezkondu omen zen Markos baina hiru alaba hazi zituen: Juanita, Isabel eta Pepita. Hirurak *markoxenekoak* izanik hirurek izan dute *Markos* ezizena.

Gerra aurreko urte haietako bizimoduak ez zeukan gaurkoarekin zerikusirik. Txiki-txikitatik lan egin behar zen: besteren lapikoak zaintzera, iturri txikira ur bila, antxoei burua kentzera... Eskolan matematika pixka bat eta irakurtzen ikasita nahikoa omen zen; hori bai, eleizako errezoak hitz egiten hasterako ia buruz ikasi behar zituzten.

Horrela, urteak pasatzen joan ziren, 16 bat urterekin *Carmen Inglesak* Markos aitari dendan lan egiteko alaba bat bidaltzeko esan zion arte.

Carmen Inglesa Mundakan jaiotakoa zen arren, txikitan, I. Mundu Gerran, Ingalaterrara joan behar izan zuten ihesi, Liverpoolera, hain zuzen ere. Bere arbasoak getariarrak izanik, herrira itzuli zen. Bere edukazio eta jakituria zela-eta gure amonak asko ikasi zuen haren ondoan; nahiz eta laguntzaile bezala hartu, beti errespetuz eta goxotasunez jokatu omen zuen berarekin.

Dendan lanean hasteak amonaren etorkizuna guztiz markatu zuen. 18 urte bete zituenean Gerra Zibila hasi zen Espainian. Amonak garai tristetzat ditu urte haiek, herriko hainbat mutil gaztek "frentera" joan behar izan baitzuten eta askotan haien berririk ez baitzen izaten.

Aita Markoxek zorteduntzat zuen bere burua, hiru alaba zituenez, ez baitzuen inor gerrara bidali behar. Oso urte latzak izan ziren haiek, baina dendari esker, amonak ez zuen goserik pasa.

Gerra ondorengo urteak ahal bezela pasatzen joan ziren; Carmen hil eta amonak dendan jarraitu zuen.



Urteak pasata denda erosi zuen, baita etxea ere. Bertan bizi zela, hirugarren pisuan bizi zen Angel Alkortarekin maitemindu zen.

Sei mutiletatik bosgarrena zen aitona Angel. Maiatzeko Lorea izeneko barkua zuten Alkortatarrek baina garai hartan aitona Deustuko Itsas Eskolan merkataritza-ontziko kapitain izateko ikasketak burutzen ari zen. Bukatutakoan, arrantzan eta Antxoas Alkorta fabrikari zebiltzan anaiak lanean.

Ezkondu eta Madrilerara joan ziren eztei bidaiari. Ongi gogoratzen ditu amonak han pasatako egunak; gustora Madrilen, baina burua dendan, lanera itzuli behar zuela eta.

Aitona negozioei buruz hitz egin behar zutela-eta dendatik pattar botila hartu eta anaiengana igotzen omen zen; horiexek garai haietako parrandak.

Amona Inaxi alargundu zenez, etxean zuten beti laguntzeko prest. Segituan etxea umez bete zitzairen: lehengoa Mari Carmen, Jose Antonio ondoren, Luis hirugarren eta azkenik Jone.

Horrela, seme-alabak, denda eta etxeko kontuekin ez zeukan aspertzeko denborarik gure amonak. Askotan esaten digun bezala: "Andreak fundamentua izan behar du, bestela ezin etxeko martxa mantendu!".

Familia handia zeukaten: senar-emaztea, amona, lau seme-alaba eta ahizpa Pepita —ezkondu zen arte beraiekin bizi izan zen—. Baina dendari esker, jatekorik inoiz ez zuten faltan izan. Nahiz eta soberan ez izan, makina bat familiari lagundu zien amonak garai haietan goserik pasa ez zezaten.

Besteei lagundu, lan asko egin eta arrazoi ezberdinengatik konserba fabrika itxi eta aitona Ameriketara lanera joatea onartu behar izan zuen amonak. Seme-alaba txikiak oraindik eta senarra urte luzeetarako kanpoan; urte latzak haiek ere.



Bizitzak lan eta sakrifizio horiek sarritu beharrean, beste arantza bat sartu zion amonari. Jose Antonio semea, soldaduska boluntario bezala bukatutik Pasaian makinista ikasi ondoren, aitarekin zebilen itsasoan 1976. urtean itsasontzia Karibe aldean betirako galdu zenean. Orduz geroztik bihotz barruraino sartutako arantza izan du amonak. Tristura handi hori barruan izanik ere, ordura arte bezala familiaren euskarri izaten jarraitu du.

Senarra eta semea galdu eta gutxira Aitziber lehenengo biloba jaio zen amonari poz pixka bat ekarriz. Ondoren, Alaitz eta Ane iritsiko ziren eta berriro ere etxea umez bete zen! Amonak ia 80 urte zituenean Maddi jaio eta koxkortu arte hor izan da amona bere beharrei erantzuteko.

Umea zaindu, bazkaria prestatu... baina baita dendan lan egin ere. *Juanita Markoxen* dendara zihoan edonork espero zezakeen 80 urterekin mostradore atzean aurkitzea, baina euroaren nahiz ordenagailuen sarrerarekin amonak jendea *despatxatzeko* lana pixka bat utzi behar izan zuen. Ez ordea pote, pakete edo arraultzen saskia betetzeari, duela gutxi arte hor ibili baita lagundu nahian. Gainera asko dira amonari dendara kasu egitera gerturatzen diren herritar zein kanpotarrak.

Azken urteotan bere lagun eta inguruko asko joan zaizkio, hori baitauka urte asko betetzeak. Baina bizitza berri asko ere etorri dira amonaren ingurura: lau birbiloba izan ditu, hauek dira irrifar eta ilusio handienak pizten dizkietenak. Haiantzako dira eskura dituen gailera, litxarrera, izozki eta propina guztiak. Txiki horien "eskerrik asko amona, maite zaitu" batekin zorionsu baita.

Gaur 100 urte betetzen dituzun honetan, inongo oparirik nahi ez duzunez, bihotz-bihotzez maite zaitugunok omenaldi txiki hau egin nahi izan dizugu. Zu gabe ez litzatekeelako posible iritsi garen lekura iristea. Eskerrik asko, amona, guztiagatik; asko maite zaitugu.



Lucia Caramek esana

Gure herrian izan zen otsailaren 26an Lucia Caram. Gutxitan bezalako aforoa izan zuen bere hitzaldiak. Benetan erakargarria da emakume hau, a ze komunikatzeko gaitasuna! Asko du esateko eta erakusteko moja honek.

Argentinan jaio zen, jatorri libaniarreko familia batean. Orain 51 urte ditu eta gazte eta kementsu azaltzen da. Hogei urte baino gehiago dira Manresako Santa Clara komentuan bizi dela eta Rosa Oriol Fundazioa zuzentzen du.

2009an sortutako elkarte honek 1.400 familia behartsu laguntzen ditu duintasuna ez galtzeko helburuarekin, 250 bolondres ondoan dituela. Proiektu anitzak ditu:

- **Elikagaien plataforma.** Ahultasun edo pobrezia egoeran dauden 2.500 pertsona ingururi bi astean behin produktu sorta ematen diete. Produktu horiek donazioak izaten dira gehienetan.
- **Egoitza.** Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendua. Bertan, aldi bateko egonaldiak egin daitezke. 2013an ireki zen eta 35 pertsona artatu dituzte.
- **Harrera pisuak.** Hamar etxebizitza dira eta kalean dauden pertsona edo familiei egoera gaituzteko leku bat eskaintzen zaie. Denboraldi batez egon daitezke bertan.
- **Besteak.** Amburnia proiektua: ikasleei fundazioaren proiektuetan parte hartzeko

aukera ematen diena; Emaa Ye Be Tum ("Ahal duten emakumeak" Ghanako hizkuntzan): joste proiektuaren aitzakian kultura desberdinetako emakumeak elkartzen dituzte beraien bizipenak partekatzeko asmoz; dutxa, arropa eta garbiketa zerbitzua nahiz baratza ekologikoak.

Hori dena gutxi balitz, idazten ere jarduten da Caram, eta ez gutxi. Hona idatzi dituen liburuen zerrenda: *Vive tu fe, El Catecismo en crucigramas, El Evangelio en crucigramas, Saludablemente bien: la homeopatía y la humanización de la ciencia, Nueva oración de los fieles I eta II, Catalina de Siena: el coraje en la Iglesia, Mi claustro es el mundo, Estimar la vida, A Dios rogando, Amar la vida y compartirla, Sor Lucía se confiesa eta Las recetas de Sor Lucía Caram.* Sukaldaritzako liburuak ere ez dira falta!

Getarian esandakoak asko izan ziren eta irribarre bat baino gehiago ere sortu zituen. Esanguratsuen ondokoari laguntzeko proposamena izan zen. Urrutira joan gabe, denok dugula inguruan laguntza —orokorrean, ez ekonomikoa bakarrik— behar duen jendea. Ulpiano Etxean bildu ginen gutako bakoitzak irizpide hori barneratu eta albokoei lagunduz gero, gure gizartean bizi diren ahultasun egoera asko gaituzteko lirateke. Halaber, esan zigun bestearen azalean ipintzeak gizaki egiten gaituzte; edo arazo guztiak ezin ditugula konpondu baina beti zerbait egin daitekeela egoera hobetzeko.

Sor Lucia Caramek esana, eskerrak zuri andrea!

Errigora

Proiektu berri edo ibilbide labur baten hasiera da Errigora. 2012an hasi zen urrats xume batzuk eginez. Bertan bere dinamika eta helburuekin bat egiten duen pertsona talde batek dihardu; sare erara funtzionatzen du eta Euskal Herriko txoko ezberdinetako herritarrek osatzen dute, hau da, lagunek eta lagunak lagunak. Azken finean lagunarte batek ematen dio gorputza ekimenari: nekazariak, ekoizleak, euskaltzaleak, kontsumitzaileak osaturiko sare anitz batek... Elkarlanean gogotsu aritzen dira.

Nafarroa hegoaldea du ardatz eta "euskara ofiziala ez den eremuan edo zonaldean" eragin nahi du, eremu horretatik ateratzen diren produktuei, propio, Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Errigoraren helburuetako batzuk lirateke, kanpokoen ordez, Nafarroa hegoaldeko produktuak Euskal Herriko txoko guztietan kontsumitzea, edota Nafarroa hegoaldean, "euskara ofiziala ez den eremuan", euskalgintzari bultzada ekonomikoa ematea.

Urtero bezala, Errigorak azaroan ematen dio hasiera kanpainari, 50 euroren trukeko saski koloretsu batekin. Euskal Herriko hainbat lekutan eskuratutako saskien diruaren %25 euskara ofiziala ez den eremuko euskalgintzako



proiektu desberdinetara bideratzen da, izan AEK, ikastola... Herritarrek egindako lan boluntarioari esker da posible %25a euskarari bideratzea. Horrek hauspo ñimiño bat ematen diete ikastetxeetako materiala erosi ahal izateko, AEK-ko ikasturtea doan izateko, haurreskola eraikitzeko, hainbat hilabetetan autobusa ordaindu beharrik ez izateko...

Azken finean, gure sukaldeetara sartzea edo ekartzea litzateke Errigoraren asmoa, bertan elkartzen gara, janaria eta otorduak egiten ditugu. Sukaldeko mahaian konpartitzen ditugu gauza txikiak eta ospatzen ditugu egun handiak. Sukaldea da etxeko erdigunea; familiaren sorlekua.

Oliba-olio birjina estraren kanpaina, otsaila-martxoan da eta kontserba-loteena, berriz, maiatza-ekainean. Ekoizlearen jatorrizko prezioan eta dena euskaraz etiketatuta banatzen dira.

Urte hauetan oparora izan da

Errigoraren ibilbidea: 2014an 1.500 familia inguruk eskatu zuten olio eta iaz, berriz, 6.000 etxetara iritsi zen uzta berria. Olio zein kontserbatan 2014an lau ekoizle ziren; gaur egun, 14. Zabalitzen doa proiektua, denek laguntzarekin, poliki-poliki aurrera doan Errigora da.

Bestetik, eskaintza eta kanpainari urtero urrats berriak eman arren, nabarmentzekoa izan zen iazko urtea, produktu ekologikoak sartu baitziren. Bi kanpaina izatetik bakar batera pasa zen, olio eta kontserbak denak batera eskatu baina banaketa zein ordainketa bi txandatan eginez. Zubi berriak ere lortu dira ekologikoa bultzatzen duten nekazari zein halakoekin lan egiten ez duten kontserbagileak langintza honetan batuz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Errigorarekin urtero konprometitu eta parte hartzen duzuen getariar guztioi. Zuek gabe proiektu honek ezin izango zukeen aurrera egin. Mila esker!

Hezkuntza eraiki

Azken hilabeteetan hezkuntzako langileekin bat egin dugu, baina lehenago ere lan gatazken errealtatea plazaratu genuen. Esate baterako, Indaux, Xey, Gamesa, pentsionista edo TSKo langile orori gure babesela helaraziz. Martxoaren 14 eta 15ean, berriz, mobilizazioak deituta zeuden txoko guztietan lan baldintzak hobetzeko eskatuz.



EIDER IRIBAR

Karmen eta beste milaka

lusioz jaiki da Karmen, 78 urteko emakumea, gaur goizean. Martxoaren 8a da eta gaur bi zita garrantzitsu ditu: 11:30ean pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzera doa eta jarraian, 12:00etan, Emakumearen Nazioarteko Eguneko greba dela-eta antolatutakora.

Hori bai, aurrez eginak utzi ditu bere egunerokoak: bazkaltzera etorriko zaizkion lau bilobentzat dilistak prestatuak ditu. Hala egin du beti; lau seme-alaba hezi ditu inoren laguntzarik gabe, senarra itsasoan arrantzan zen bitartean. Eta orain bilobak zaintzen ditu beraien gurasoak lanean daudenean. Ez du etxetik kanpo lan egin, eta ziur badela lotsagaberen bat hori aurpegiatuko diona. Beraz, eskerrak eman behar alaguntasunari hilean 700 euroko pentsio eskasa jaso dezan!

Amaitu da bigarren elkarretaratzea eta presaka abiatu da etxera bilobak iritsi aurretik dena prest egon dadin, gaur greba eguna baita eskolan ere, eta gutxieneko zerbitzuekin ordua baino lehen iritsiko diren beldur da.

Ettxera sartu orduko ohartu da hotza dagoela. Termostatoa begiratu eta 16 gradutan dago, baina jertse lodi bat janitzi eta berogailurik ez piztea erabaki du. Gogorra baita azken zentimoak gastatu beharra fakturak iristen direnean. Ondo daki hori Karmenek!

Kexa kexaren atzetik bada ere, dilistak jan eta alde egin dute umeez berriz ere eskolara. Sukaldea jasotzen duen bitartean, "Tira, doazela! Behintzat eskolara joateko aukera badute eta!", dio bere artean. Bost senideen artean neska bakarra izanda, oso gazte zela etxean geratzea tokatu zitzaion Karmeni, eskolaratzeko aukerarik gabe. Badu frustrazioa horregatik. Hala ere, bere seme-alabei ikasketak ordaindu ahal izanak baretzen du hein handi batean frustrazio hori. Baina nekatuta dago haiek ere prekarietateak jota nola bizi diren ikustez.

Bai, nazkatuta dago Karmen. Gainean darama bizi osoan egindako lan mordoaren zama. Baina sinetsita dago zerbait lor daitekeela. Horregatik gaur pentsiodunen prekarietatea eta sexu diskriminazioak salatzen irten da, eta ez zaio kemenik falta hurrengo asteetako mobilizazioetara joateko ere. Ondorengo belaunaldientzat egiten omen du hori ere, bizi honetan bereak eginak omen ditu.

Belaunaldi gogorra da, noski, Karmenena. Ea nork isiltzen dituen hauek. Eta guk, isilik geratu behar al dugu? Bakarrik utzi behar al ditugu beste behin gero guretzat izango denaren aldeko borrokan?



Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

EMAKUME ABERTZALE BATZA

Orain dela zenbait hilabete euskal abertzaletasunarekin loturiko nekazal elkarten inguruko zenbait datu plazaratu modura, oraingo honetan, euskal abertzaletasunarekin loturiko emakume elkarten inguruko informazio zantzu batzuk zueganatzeko asmotan gatoz. Aipaturiko idatzian bezala, XIX. mendeko lehen herenera egingo dugu salto, zehatzagoak izanda, Bigarren Errepublikaren garaira. Aztergai daukagun elkartearen zimenduak finkatzeari 1922. urteko apirilean ekin zitzaion arren, 1923ko Primo de Riveraren diktaduraren hasierak hegoak moztu zizkion jaiotze berri zen elkartearen lehen hegaldiari.

Lehen hegaldiko dinamikari Bigarren Errepublikaren garaian eman zitzaion jarraipena, ordukoan bai, EAJ-PNV alderdiaren elkarte modura. Esan daiteke, jarraipena baino gehiago, garai hartan joan zela Emakume Abertzaleen Batza euskal gizartearen garrantzia irabazten eta barneratzen. Besteak beste, euskara, takigrafia, mekanografia, katekesi, geografia, historia, kontabilitate eta solfeo klaseak eskaintzen zituen elkarteak; antolaketa sindikalean erabat murgilduta zebilen, arazo sozialei



Emakume Abertzaleen Batzako lehen banderaduna, 1922ko ekainaren 25ean. / Argazkia: aunamendi. eusko-ikaskuntza.eus/eu/argazkia/mu-15064/

aurre egiteko lanean geroz eta eragin handiagoa zuen, etab.

Elkartearen sorkuntzaren araudian argitzen zen moduan, helburu nagusia zen Jaungoikoa eta Lege Zaharraren emakumeen elkargunea izatea eta euren doktrina hedatzea, betiere euskal alderdi sozial, kultural eta ongintzara bideratua

izanik. Horrez gain, guztiaren oinarrian euskara ezartzen zuten. Era berean, emakumeen elkarteak izan arren, gizonezkoen menpeko zirela berresten zuten uneoro.

Hego Euskal Herriko herri eta hirietan oso arin zabaldutako elkarte hauek —guztiak goi organismo batean federatuak—, eta nola ez, Getariara ere iritsi zen elkarteak.

Eusko Ikaskuntzaren arabera, 1932. urterako Getariako Emakume Abertzaleen Batza indarrean zegoen arren¹, Getariako Udaltzarreko aktek informazio hau ezeztatzea eramaten gaituzte. 1936ko maiatzaren 31ko udaltzarreko aktaren arabera: "...el diputado Sr. Urquijo vendrá a esta (villa) el próximo domingo día siete de junio con motivo de la inauguración de Emakume Abertzale Batza...".

Gauzak horrela, argi dagoena da Getarian sortutako elkarteak ez zuela ezer askorik egiteko denborarik izan. 1936ko uztailan hasi zen gudan zaurituak zaindu eta bestelako laguntza lanetan aritu ahal izan zela pentsa daiteke, baina gerra ondoreneko zapalkuntzarekin segurua da elkarteak deuseztatua izan zela.

¹ <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/emakume-abertzale-batza/ar-47346-26562/>



Getariako eraikuntza zaharrak

Getariako Iturzaeta ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak, Natur arloan Erdi Aroa eta Aro Garaikidea lantzen ari gara. Hori dela eta, herriko eraikuntza zaharrak aztertzeko bisita gidatua egin dugu herrian zehar. Hain zuzen ere, Xabier Alberdiren laguntzarekin, Getariako etxe zaharrak ezagutu eta beraien historiaren jabe egin gara.

Xabierrek herriko zortzi eraikuntza erakutsi dizkigu bisita gidatu horretan. Besteak beste, itsasaldeko eta barnealdeko harresietarako ateak, Indianokua, Zarautz Jauregia, Erromeronekua, Tejabana, Aldamar Jauregia eta Dorreak.

Tejabana eta harresiko ateak kenduta, gainerako eraikuntzak Getariako nobleek eraikitako jauregiak dira. Jende diruduna bizi zen bertan eta etxeko fatxadetan armariak jartzen zituzten beraien aberastasuna erakusteko. Beste eraikin batzuek, berriz, hortzak dituzte eta, jakin dugunez, etxeak babesteko egurrezko pertsianak jartzeko balio zuten. Leihoguztiak egur lodiz ixten ziren, izan ere, lehergailuek eztanda egitean egur lodiarri su hartzea asko kostatzen zitzaion. Horrela, dorreak eta jauregiak babestea lortzen zuten. Horrez gain, dorre eta jauregiek leihotxikiak zituztela konturatu gara, horrela, beraien erasotzera etortzen zirenean, beren burua babesteko aukera zuten.

Hala ere, etxe horiek egiteko dirua nondik lortu zuten ba al dakizue? Batez ere arrantzatik lortzen zuten, baina bada Mexikon mehategia erosi eta zilarra salduz dirua egitea lortu zuenik ere.

Gaur egun, dorre eta jauregi horiek aldatu eta asko etxebizitza bihurtu dituzte. Dorreek garai batean almenak zituzten gerrarako, baina orain horiek kendu eta adreiluzko teilatuak dituzte. Horrela, Xabierrekin egindako ibilbideak egunero ikusten ditugun etxebizitzak aurretik zer ziren jakiteko balio izan digu.



Hau guztia gutxi ez eta, gerra ondoren Getaria suntsituta geratu zela jakin dugu. Hamabi etxek bakarrik lortu zuten zutik geratzea. Etxe horiek zein izango ziren asmatzea ez da zaila, ezta? Aurrez landutako jauregiak, noski! Sutearen eraginez alde zaharreko etxe guztiak XIX. mendearen bigarren zatian eraiki ziren. Beraz, gerratik bueltatzean tejabanetan egon ziren bizitzen herritarrek; eta berriz ere arrantzatik dirua lortu arte ezin izan zituzten etxeak eraiki.



Getaria gerretatik babesteko sortu ziren harresiak ezagutzeak asko txunditu gaitu. Itsasaldeko harresiak daukan atea tunela zela uste izan dugu beti, baina orain badakigu ez zela horrela. Harresiaren ateak lehergailuetatik babesteko sortu zituzten.

Bisita gidatu honetan ondo pasatu genuen. Ordu eta erdiko ibilbide batean zenbat ikas daitekeen, e?



Getariako I. Gazteen Txapelketa

Aupa urritzakideok:

Dagoeneko martxoan ere badoa aurrera. Urte berriarekin batera Urritzak hainbat ekintza antolatu ditu: Txuri Urdinera irteera, mozorro tailerra, eta hilabete honetan, txikienok Anoetara joan gara Errealaren partidua ikustera. Erreal eta Alavesen arteko norgehiagokaz gozatzeko aukera izan dugu. Oso ondo pasatu dugu eta gainera bi gol ospatu ditugu! AUPA ERREALA!

Aipatu genizuen bezala, 2018ko udaleku irekien prestakuntzarekin hasi gara: dagoeneko hainbat alditan bildu eta udarako proposamenak zein ideiak bildu ditugu. Gure helburua denok batera udara zoragarria pasatzea izanik, denon proposamenak aintzat hartuko dira. Horiek egiteko hainbat modu dituzue: Facebooka, Urritzako mugikorra edota kideengana hurbiltzea, lotsarik gabe. Aurrerago, informazioa eta gure proposamenak aurkeztuko dizkizuegu. Adi egon!

Katxopa Gaztelekua ere indartsu dator oraingoan. Proposamen berri batekin gatoz: Getariako I. Gazteen Txapelketa. Hori aurrera eramateko bospasei kideko talde mistoak osatu beharko dira. Txapelketa martxoaren 29tik ekainaren 30era izango da. Gainera, sari potoloak izango dira! Beraz, ez egin zalantzarik, osatu neska-mutil taldea eta parte hartu txapelketa zoragarri honetan! Zalantzarik izanez gero,



Urritzako umeak Errealaren partida aurretik, Getariako frontoian.

hurbildu Katxopa Gaztelekuan gauden begiraleongana eta azalduko dizuegu.

Amaitzeko esan, zuen parte hartzeak eta ilusioak indarra ematen digula Urritzako begirale guztioi aurrera egin eta lanean jarraitzeko. Mila esker!

Elkar ikusiko dugu eta ondo segi!

Harremanetarako datuak:

urritza.ae@gmail.com
gaztelekua.uae@gmail.com
688 71 25 10



UXOA IRIGOIEN

"I believe that whether a person follows any religion or not is unimportant, he or she must have a good heart, a warm heart"

"Honakoan sinesten dut: pertsona batek erlijioen bat jarraitu edo ez, garrantzitsuena bihotz ona izatea da", Dalai Lama

Aurreko alean, Ibon erlijio irakaslea elkarrizketatu zuten Txapakalezkako hiru artzapekide eroek. Hilaren amaieran, berriz, Aste Santua ospatuko dute kristauek; nahiz eta elizara joan ohi direnak geroz eta gutxiago izan, hainbat herritarrek parte hartuko dute elizkizunetan. Oraingo honetan, munduan dauden erlijio desberdinen inguruan hitz egingo dizuet: ingelesez nola esango ote dira "mezquita" edota "ateoa naiz"?

Vocabulary

English	Pronunciation	Euskara
Buddhism	Budisem	Budismoa
Buddha	Buda	Buda
Mantras	Mentres	Mantrak
Islamism	Islamisem	Islamismoa
Mosque	Mosk	Mezkita
Koran	Koran	Koran
Catholicism	Katolicisem	Kristautasuna
Church	Txertx	Eliza
Bible	Baibel	Biblia
Pope	Poup	Aita Santua
Hinduism	Induisem	Hinduismoa
Meditation	Mediteixion	Meditazioa
Judaism	Judaisem	Judaismoa
Rabbi	Rabai	Rabinoa
Atheism	Eiciisem	Ateismoa
Goddess	Godas	Jainkosa
God	God	Jainkoa
Holy Book	Jouli Buuk	Liburu Santua

Esamoldeak

English	Pronunciation	Euskara
Believe in yourself.	Bilif in yorself.	Sinetsi zure buruarengan.
The monk is praying.	De monk is preying.	Monjea errezatzen ari da.
I'm an atheist.	Aim an eiciest.	Ateoa naiz.
We should respect all religions.	Ui xud respekt ol reliyions.	Erlijio guztiak errespetatu beharko genituzke.
Muslims gather together in Mecca.	Maslems gader tugede in Mecca.	Musulmanak Mekan elkartu ohi dira.
Your granny goes to mass every Sunday.	Yor grani gous tu mas ebri sandei.	Zure amona mezetara joaten da igandero.
Do you believe in reincarnation?	Du yu bilif in rienkarneixion?	Errenkarnazioan sinesten duzu?

Bidalitzailea
ARTZAPEKO LANTALDEA

TAPETANA



Getarian ere galbidean doan hitza da. Gazte-jendearentzat ezagunagoak dira *esparadrapo* edo, ezagunago oraindik, *tiritas* hitzak. Adinean aurrera doazenen ahoetan, *tapetana* da erabiliagoa.

Gaztelaniazko *tafetan* (zetazko oihala) hitzetik hartua du euskarak, eta letrak bere moldera eratua. Izan ere, euskaraz oso ohikoa da <f> eta <p> letren alternantzia. Horixe bera gertatzen da beste hitz hauetan ere: *festa/pesta*, *fraile/praille*, *infernu/inpernu*, *feria/peria*, *farre/barre...*

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali artzape@topagunea.com -era ezagutzen dituzun hitzak.



Idazlea
AMAIA IRAZABAL

TIPULABEGIA

Behin eta berriz esnatuko naiz.

Behin eta berriz begiak ireki.

Baina ez dut ikusiko

hurrengo betazalaren

atzealdea besterik,

ustezko "ni" baten islada gisa,

ustezko azken betazalaz bestaldetik

datorren printza,

ez da

ustezko "ni" baten islada gisa datorren

hurrengo betazalaren

atzealdea besterik.

Behin eta berriz.

Berri.



LUXUE ALBERDI

Harria eta haragia

Esperientziek, gorputzetik pasa ezean, memoria laburra dute. Ez da gauza bera maitemina ulertzea eta maitemintzea; gerraz pentsatzea eta gerran egotea; ideologia bati buruz irakurtzea eta diskurtsoa haragitzea, norbere azala zeharkatzen uztea.

Diskurtsoan, denok gaude berdintasunaren alde. Nor ausartzen da gaur egun aurkakorik esaten? Diskurtsoetik praktiketarako bidean, baina, herren egiten dugu.

Honrexegatik izan zen iraultzailea martxoaren 8ko greba: diskurtsoak bakarrik ez, gorputzak interpelatu zituelako. Mugimenduan zeuden gorputzak —gorputz prekarizatuak, subordinatuak, zapalduak— gelditu egin ziren, eta sistemaren herrena jarri zuten agerian. Deseroso sentitu zen hainbat lagun: egun bakar horretako deserosotasunak salatzen baitzuen eguneroko erosotasunak nondik datozen maiz, posizio pribilegiatu eta menperatzaileetatik.

Donostiako Boulevardean eseri ginen, autoek zirkulatzen duten hiriaren arteria buxatu genuen morez; tuperretatik jan genuen Gipuzkoako plazako lurrian; Zarautzen, zaintzari buruzko kafe-tertulian, esklabu bihurtu ditugun emakume hegoamerikarren testigantzak aditu genituen, krak egin zigun hezur zuriren batek; aspaldiko manifestaziorik jendetsuenean parte hartu genuen eta "gora borroka feminista!" egin genuen oihu.

Mobilizazioak telebistaz edo irratiz jarraitu zituztenek haien oihartzuntzua usainduko zuten, dardararen

bat sumatuko zuten non edo non —konplizitatezkoa, amorrutzkoa, inbidiazkoa, erresistentziazkoa—, baina bertan izan gineno ez zaigu berehalakoan ahaztuko gorputzen igurtzia, begiraden hunkidura, triangelaturiko eskuen indarra, ahotsen ozena, pausoaren norantza... Eta nago: aurten han izan denak ez du datorren urtean hutsik egingo. Gorputzak eramango du kalera, askatasunen alde mobilizatzen. Memoria ona baitu haragiak.

Eta pena sentitu nuen gurea izan zelako ganorazko egitaraurik, ganorazko plantorik, ganorazko mobilizaziorik antolatu ez zuen eskualdeko herri bakarra. Hasiera bat izan zen, eta ongi dago. Baina atzetik goaz. Eta getariarrok, albo herrietara mugitu ezean, kolektiboaren indarra gorputzean sentitzeko aukera txikia izan genuen, izaten dugu. Zarautzen jaiotzen den emakumeak gertuago eta zabalago du feminismoarako zubia Getarian jaiotzen denak baino. Gure esku dago azken urteotako mugimendu politikorik eraldatzaileena artikulatzea eta "festa" "aldarri" bilakatzea.

Plazako Elkanoren eskulturari zapi morea janzteko galerazi zieten herriko neska batzuei martxoaren 8an. Asko dio irudiak: gizona, harrizkoa, menperatzailea, hor, plazaren erdian ukigaitz: heroi. Haragizko neskak handik urruntzera behartuak "horrela ez duzue ezer lortuko" aitakeriazko batekin. Harriaren alde ala haragiaren alde: agian, hortxe dago kokxa.



ZIGOR SAIZAR

Imajinatzen haunat...

Imajinatzen haunat Joxeinaxiori eskua emanda Aste Santuko prozesioa Kale Nagusian ikusten.

- Benga Joxeinaxio, udaberrian sartu gaituk, berpizte garaian gaudek, egingo al dizkiagu xirri batzuk pia-piako tunelaren ilunpetan?

Imajinatzen dizkinat Joxeinaxioren betaurrekoak lurruntzen, burusoilean izerdi tantatxoak ateratzen...

- Ixo, ixo, Maria, hori sakrilegioa den! Deabruak hartuta hagon, *In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.* Goazen, goazen elizan sartzera, bataio ponteko uraz ea Satanaz hire gorputzetik ateratzen dinagun.

Imajinatzen haunat elizpean sartu aurretik eskuetan bola duen santuari begira, irri pikaroz begia kliskatuz, pentsatzen ari haizena esanez:

- Nire gorputzetik atera... San Pedrok eskuetan duen bola horren antzekoak dizkiat nire sexuan, Joxeinaxio, txikixeagoak eta txinatarrak. Konfesatokian aterako al dizkiak?

Imajinatzen dinat bere sotana beltza puzten eta puzten, *alien* bat izango balu bezala, baina

besoak aldarearen goian gurutziltzatuta dagoen bizardunari zabaldua:

- Begira iezaien, Maria, bere sufrimendua, muskulu guztiak tenkan, izerdia odolarekin nahastuta... Berpiztuko balitz zer pentsatuko din gu bekatarioz?

- Hara, Joxeinaxio: begira *natxok*, bai, eta aspalditik pentsatu diat Getaiko parrokan daukagun Jesukristo oso ona dagoela, kriston mutil katxarroa... eta askotan desiratu diat gerrira lotuta daukan traputxoak erortzea...

Imajinatzen dinat aldareko mahaia dinbili-danbala, imajinatzen dinat kandelen argizari beroa zuen azalean, imajinatzen dizkinat santu eta amabirjina guztiak gainean dituzten oihal zaharrak behingoz kenduta, zuen festan parte hartzen, imajinatzen dizkinat zuen uluak koruko organoarekin musika zerutiarra osatzen...

Oharra: pelikula honetako pertsonai guztiak fikziozkoak dira, ez dute zerikusirik errealitatearekin... edo bai? Hori bai, pertsonaia nagusia Magdalako Maria da, Vatikanoko onartutako 13. apostolua... eta bestea irakurleak asmatuko du.



ANDRES ALBERDI

Potzuaga eta Lormendi

Garai batean hala ez bazen ere, gaur egun herriaren hirigunean dauden kale bat eta aldapa bat dira. Esanahi argia du lehenak; ez, hala, bigarrenak.

POTZUAGA. 'Putzu-parajea' esan nahi du. Gaur egun, euskara batuan, *putzu* hitza erabiltzen da, baina tradizioan forma bat baino gehiagotara ageri da: *putzu, potzu, putxu, pozu...* Euskaraz, *O/U* alternantzia hori oso normala da eta ez dira arraroak bikoiztasunak: *pauso/pausu, kaso/kasu, organo/organu...* Edozein modutara ere, mailegu zaharra da, latinezko *puteu* hitzetik datorrena. Gaztelaniaz *pozo* eman zuen; euskaraz, *putzu* (eta tokian tokiko beste aldaerak).

Erro bera daukate beste toponimo eta abizen hauek ere: *Pozueta, Puzuaga, Pozualde, Putxutegi, Bozueta...*

Potzueta parajea ere bada Getarian, Garategaine inguruan: 'putzu-parajea' esan nahi du horrek ere.

LORMENDI (LORMENDIKO ALDAPA). Iritziak ez datoz bat izen honen esanahiaren inguruan, etimologia ez baita argia. Gainera, guk dakigunez, antzeko toki-izenik ez dago inguruetan, eta ezin konparaziorik egin. Hauek dira etimologiaren inguruko hiru iritziak:

- Luis Mitxelenak dio *lor* hitzak *garraio* esan nahi duela. Hark darabilen adibidea *Lorbide* izena da; dio 'garraio-bide' esan nahi duela horrek. Iritzi horretara joko bagenu, 'garraio-mendi' litzateke *lormendi*. Berez, argibide posiblea da, paraje aldapatsu horretan hasten baitzen Getaria eta Zarautz lotzen zituen mendi-bide zaharra.
- Bada oinarrian (*E*)*lormendi* ikusten duenik ere: *elor(ri)-mendi* ('sasi-mendi'). Hitz-hasierako bokalaren galera ez da ezezaguna euskaraz (Etxabarri/Txabarri).
- Bada *Lor(e)mendi* ikusten duenik ere.



Potzuaga.



Lormendi.



IRIZABAL, S.A.

ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981



Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Mendi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com



TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...



660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com



GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
Luxuzko pintxoak, bokatak
eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113



Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86



Taberna

Mayflower

Erretegia

katrapona, 4

Tel.: 943 14 06 58

GETARIA

TXOKO

Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539



GETARIAKO PENSIODUNAK

"EUSKAL HERRI MAILAKO ESKARIEN BERDINAK DIRA GUREAK: ERRETIROA ETA ALARGUNTASUNA, ADIBIDEZ"

Getariako pentsiodunak eta jubilatuak biltzen ditu herriko Arrantzale Zaharren Elkarteak, eta bertako kide dira Cristobal Etxaniz eta Jesus Aizpurua. Azken asteetan plazan biltzen hasi dira, pentsioen trataera duina eskatzeko.

Kanpoan etenik gabe ari du euria, eta Arrantzale Zaharren Elkartearen daude Cristobal Etxaniz eta Jesus Aizpurua. Egunkaria dute mahaiaren gainean; bi egun lehenago pentsiodunek erretiro duina eskatzeko Donostian egindako manifestazioaren analisisiek betetzen dituzte orri asko. Elkarretaratzean izan ziren biak, eta nabari zaie gustura itzuli zirela handik: "Lekutik mugitu ezinik egon ginen denbora askoan. Jendetza izugarria zegoen", azaldu du Etxanizek. Baietz dio albotik Aizpuruak.

Martxoaren 17ko manifestazioaren biharamunean, mahai gaineko egunkariak — El Diario Vasco — eta beste zenbaitek haien editorialetan zioten 15M mugimenduaren ostetik estatu mailan egindako mugimendu eraldatzaileena izan dela pentsiodunena. Ados zaudete horrekin?

Jesus Aizpurua: Bai, eta iruditzen zait egun hartakoa beharrezkoa dela. Donostiako manifestazioa abian zela, alboko kaleetatik jendetza ateratzen ikusten nuen une oro, batzeko; Prim, Urbietta eta gainontzeko kaleetatik. Ia inoiz ez nuen horrela ikusi Donostia. Egoera honetan gure aldetik jarri behar dugu bakoitzak, hondar ale bakoitzarekin egiten delako hondartza handia.

Cristobal Etxaniz: Handia izan zen, eta alderdi politikoak ere oharatu direla uste dut. Gero eta indar gehiago du mugimenduak, eta gaiari heldu beharko diote.

Getarian ere biltzen zarete. Nondik sortu zen plazan elkartzeko ideia

J.A.: Egoera orokortzen ari delako. Guk ikusten dugu alde guztietan jendea indarra



Cristobal Etxaniz eta Jesus Aizpurua, Arrantzale Zaharren elkartearen.

"Herriarrok gure artean kexatzen gara, baina kexa ez dugu kanporatzen. Ezin du horrela izan"

ateratzen ari dela. Indar hori egoera ekonomikoak behartu du, geroz eta okerrago ari baita jartzen. Gobernatzen ari direnak haien sektorearengatik kezkatzen dira; ondo bizi direnen alde doaz, gidalerro batzuk markatuta. Sistema hau haien arteko kate bat da, eta hor erabakitzen dute guztia. Lotuta dute dena, eta horra ezin da igo. Hortik behera nahi dugun gisan konpontzen uzten digute, baina gora egiten ez. Orduan, behean hasten dira partxeoekin eta abar, eta horrek behekoen egoera okerrago uzten du.

Ea oharitzen diren ez daudela eurak erdian, gu gaudela,

eta gure ondasunekin ari direla jokatzeko. Izan alderdi bat edo beste, gure zergekin aritzen dira. Gu ari gara haiek mantentzen, eta gainera, existituko ez bagina bezala tratatzen gaituzte. Hori kontutan, zer egin dezakegu? Bada, lehendabizi gure proposamenak zenbaterako sustengua duen ikusi.

Herriarrok gure artean kexatzen gara, baina kexa ez dugu kanporatzen. Horrek ezin du horrela izan: manifestatu egin behar da, guztiok bide berean. Nola egin liteke hori eraginkor? Herri bakoitzean lanean hasita; hirugarren adinak indar handia du, jende asko dagoelako hor.

ELKARRIZKETA

Herrietako antolakuntza aipatu duzunez, nola joan da bilkuren prozesua?

J.A.: Gure artean hasi zen. Asanblada egin genuen elkarteetan, eta handik pixka batera, gure artean aipatu genuen ea gure egoera nola azaldu genezakeen. Pixkanaka antolatzen hasi ginen, elkarren artean hizketan, eta gerora zabaltzen hasi ginen.

C.E.: Donostian-eta lehen protestak egin zituztenean, hartu emana dugun elkarteekin jarri ginen harremanetan, Zarauzko, Zumaiako eta Orioko lagunekin. Ordura arte bakoitza bere aldetik ari zen, eta bat egiteko aukera zegoela pentsatu genuen. Zaila zen, ordea, ez baikenekien nola. Orduan, Donostian lehen kontzentrazio handia egin zenean hara joan ginen, eta gerora hasi ginen pausoak ematen.

Gu elkarte mailan batzen hasi ginenean ohartu ginen Getariako hirugarren adineko jendearen artean zati txiki bat besterik ez garela; 135 gara, baina jubilatutako guztiak kontutan hartuta 700dik gora gara herrian. Ezin genuen guztien izenean hitz egin, baina gure kabuz hasi ginen lanean.

Orduan, asanbladako eguna aprobetxatu genuen azalpenak emateko, eta jendeak bat egin zuenez, eguna jarri genuen. Kontzentrazioak ostegunetan egitea aukeratu genuen, eta jendeak ondo erantzun du.

Pankartaren atzean biltzen zarete, baina zeintzuk dira zuen eskariak?

C.E.: Euskal Herri mailan eskatzen diren berdinak: erretiro duina, alargunen pentsioak, eta abar. Eskubide horiekin bat gatoz.

Gero, uste dut guk nola edo hala diru pixkat jasoko dugula, baina zalantza dut gure atzetik datozenak nola moldatuko diren. Orduan, guretzat bai, baina irtenbidea behar dugu gerokoei begira ere.

Alderdi politikoek konpondu behar dute; egun aiton-amonak seme-alabei laguntzeko daude, haiek ere gero eta larriago daudelako kotizazio aldetik-eta. Haiek zenbat eta gutxiago kotizatu, guk jasotzen duguna ere jaisi egingo da.

Atzetik datozenen alde ere ari zarete. Behar besteko babesa jasotzen duzue haiengandik?

C.E.: Bai, uste dut baietz. Kontzientzia badago; gazteek ikusten dute egoera nolakoa den, eta laguntza ematen dute.

J.A.: Sistema aldatzera joan behar dugu, eta gu guztien indarrak aldaketarako balio behar du. Goian daudenak azken 40 urteetan goian ibiltzera ohituta daude.

C.E.: Alderdi politikoek, hemengoek behintzat, aurrera

"Beste elkarteekin ere harremanetan jarri beharko dugu, bilera batzuk egin... denok bat egiteko modu bat bilatu behar dugu"



egiteko bat egin behar dute. Zaituz gero, amaitu da.

Zeintzuk izango dira zuen hurrengo pausoak?

J.A.: Gure artean ados jarri, eta esan "Hasiko al gara pixka bat mugitzen?". Beste elkarteekin ere harremanetan jarri beharko dugu, bilera batzuk egin... denok bat egiteko modu bat bilatu behar dugu. Bilerak egin eta jendeak arnasa nondik hartzen duen ikusi behar dugu lehenik.

C.E.: Nire ustez, herri mailan hasi beharko genuke lehendabizi. Eta, gero, hartu-emanu dugun bilarako gainontzeko elkarteekin bildu. Gure artean hasiz gero, Gipuzkoa mailara ere heldu gintezke, bakoitza bere aldetik joaten bada zailago izango ditugu gauzak. Indarra hartu du gaiak, eta jarraitu beharra dago.

Gainontzeko elkarteak aipatu dituzue. Egun, baduzue harremanik?

C.E.: Harremanak egiten hasi behar da. Gure arteko harremana dugu, baina hortik kanpo gutxi.

J.A.: Badaude elkarte batzuk,

eta manifestazioa bultzatu dutenen izenak ikusi ditugu egunkarietan —aurrean duena hartu du—: Duintasuna, Txingudiko pentsiodunak... Hauek guztiek helburu bakarra dute; ez dira alderdi politikoak, horiek beste interes batzuk dituzte. Hauek beste gidalerro batzuk dituzte: egoera aldatu behar dela, eta etorkizun hobea baterako bestelako bideak bilatu behar direla. Haien interes berdinak baldin badauzkagu, harremanetan jarri gintezke antolatzeko moduak bilatzeko. Galdetu haiek nola egiten duten, nola osatuta dauden...

Noraino irits daiteke pentsiodunen borroka?

C.E.: Luze joko du agian, eta pentsioen sistema ere aldatu beharko dute etorkizunerako zerbait utzi nahi bada. Ez dakit, Euskal Herrian bertan izatea gure pentsio sistema... hori ona litzateke, baina politikariei dagokie erabakitzea.

Zer moduzko osasuna du Arrantzale Zaharren Elkarteak?

C.E.: Urterik urtera hobea. Kontuan izan behar da erretiroa

hartuta dugula, eta jubilatuekin bakarrik zaila da aurrera egitea. Haien seme-alabak etortzeak ere badu garrantzia. Gero, ekintzak egiten ditugunean parte hartzen du jendeak. Orain Udalarekin akordio batera iritsi nahian gabilza, eta baliteke elkartearen izena ere aldatzea. Estatutuak ere aldatuko genituzke hala, eta gure ekintzetarako beste lokal bat hartzeko asmotan gara.

Adineko jendea hona etortzea nahi dugu. Esaterako, orain artean bazkideek soilik sartu ahal dute sukaldean; bada, Udalarekin harremanetan ari gara lege aldetik ondo jarri eta sarrera adineko guztiek izan dezaten.

Beste era bateko elkarteak sortu nahi duzue?

J.A.: Ez, baina edadetu guztiengana heldu nahi dugu. Iggogailua ere badugu, eta bizitza eman nahi diogu elkarteari. Hirugarren adineko pertsonak altzari moduan egon ohi dira sarri, epeletan egonean, eta hori ez da ona. Hona etortzea nahi dugu, bere lagunekin egon daitezen, eta hartu-emanak landu ditzaten.





Bi zati ditu erakusketak: batek, Balenciagaren obrak 1968tik gaur egunera egindako bidea jarriko du ikusgai; besteak, 1917ra egingo du atzera, lehen negozioa ireki zuen garaira.



Testua eta argazkiak
JON ANDER DE LA HOZ

"Balenciaga. Moda eta ondarea"

BALENCIAGAREN ONDAREAK IRAUN DEZAN

Urtarrilaren amaieratik itxita egon ostean, berriz zabaldu ditu atek Cristobal Balenciaga Museoak. Erakusketa berri bat estreinatu du, gainera: "Balenciaga. Moda eta ondarea". Maisuaren ondarea erakutsiko dute bertan datorren urteko urtarrilera bitartean.

Eguraldi ona ez da udaberriaren etorrera iragartzen duen bakarria Getarian. Itsasontziek babesleku izan duten kaia uzten dute arrantzara joateko, Zarautz bideko pasealekua jendez betetzen da... eta bisitariz gainezka etortzen dira autobusak. Haietako askok bide zehatza izaten dute, eta, hasi edo buka, Cristobal Balenciaga Museoan geldialdia egiten dute.

Aurtengoan ere hasi dira lehendabiziko autobusak iristen; ia hiru hilabeteko geldialdia egin ostean, museoak atek zabaldu ditu berriz ere. Oraingoan, gainera, Balenciaga museoari eskaini dio bere erakusketa berria, osorik. *Cristobal Balenciaga. Moda eta ondarea* sortak jostunaren legatua erakusgarri jarri du; martxoaren 24an zabaldu zuten erakusketa, eta datorren urteko urtarrilaren 27ra arte egongo da irekita.

laz mendea bete bazen Balenciagak bere lehendabiziko negozioa ireki zuenetik, aurtengo mende erdia beteko da Getariako maisuak 1968an erretiroa hartu zuenetik. Hain justu, bere ibilbideari erreposoa egin asmo du erakusketa berriak. "Balenciagaren moda eta ondarearen arteko elkarriketa" egitea dute asmo, museoeko iturrien arabera. Hala, omenaldia egiteko probestu nahi dute aurtengo erakusketa, "bere obrak Parisen, Madrilan, Bartzelonan eta Donostian utzi duena bistaratuz".

"Balenciagaren piezak gorputzak edertzeari utzi eta erakustoeietara salto egin ostean", museoak 1968. urtea hartuko du moda eta ondarearen arteko

bidegurutzetzat. Hala, erakusketaren atal batek Balenciagaren obrak ordutik gaur egunera bitartean egin duen bidea jarriko du erakusgarri. Zati horretan bisitariak jakin ahal izango du obrak egungo ondare balioa hartzeko zer nolako pausoak jarraitu dituen; hain justu, bide horretan kokatu du museoak bere izatearen jatorria.

Erakusketaren beste zatiak 1917. urtera egingo du atzera; urte hartan ireki zuen Balenciagak bere lehendabiziko negozioa, Donostian, eta irekiera hartatik mundu mailako etxe guztiak itxi arteko ibilbidearen erreposoa egiten du. Zati horretan, bisitariari ulerraraziko diote jostunaren lanek izandako "garapena, bilakaera eta hark eragindako iraultza".

Erakusketa antolatzeke ezinbestekoa izan da Judith Clarkekin egindako lanketa. Londresko University of the Arts erakundeke Centre for Fashion Curation plataformako zuzendaria da, eta bertako komisario lanak egin ditu. Harekin elkarlanean hautatu ditu Cristobal Balenciaga Museoak erakusketan egongo diren piezak. Halaber, bi aldeek arteko elkarlanaren bitartez osatu dituzte eskainiko diren azalpenak, baita espazioaren kontzeptualizazioa ere.

Azken horren barruan, 900 metro koadroko azalera izango du erakusketak, eta 80 pieza jarriko dituzte ikusgai. Haietako asko jostunaren jantziak izango dira, baina ez hori bakarrik; besteak beste, dokumentazioa, irudiak, objektuak, patrioiak, bozetoak eta ehunak jarriko dituzte bisitarien gozagarri. Teknologiak ere izango du



Aurkezpenean izandako erakundeetako ordezkariak./Arg.: CBM



Balenciagaren bi pieza; guztira, 80 daude ikusgai.

bere lekua. Museotik jakinarazi dutenez, "interakzioa errazten du, eta digitalizazioak piezen xehetasunak ikustea ahalbidetzen du". Horrez gain, teknologiaren bitartez piezen 360°-ko ikuspegiaz baliatu ahalko da museora doana, eta piezen egitura teknikoak azaltzen dituen infografiak ikusi ahalko ditu. Halaber, Cristobal Balenciaga Museoa ibilbide tematiko ezberdinak proposatzeko aplikazio bat garatu du.

Ondo egonkortutako espazioa

Ekainean zazpi urte beteko ditu Cristobal Balenciaga Museoa. 2010ean amaitu zituzten eraikitze lanak, baina ia urtebete beranduago zabaldu zituen ateak. Pixkanaka, gorako joera izan du museoa bisitari kopuruari dagokionez. Hala, 2017. urtean %14 igo zen bisiten kopurua, aurreko urtearekin alderatzen bada: guztira, 51.300 lagun izan ziren museotik.

Etengabeko gorakada izaten ari da ateak zabaldu zituenean. Iaz 51.300 lagun izan baziren, 2016an 45.000 lagunek bisitatu zuten jostunaren omenezko eraikina, eta 40.000 inguru izan ziren urtebete lehenago, 2015ean. Nazioarteko bisitarien kopurua igo izanak eragin zuzena du emaitza hauetan; 2016an jada nazioarteko bidaiariak, kopuru osoaren %46 ziren —espainiar estatuko bisitariak kontatu gabe—.

Ohorezko presidentea hil da

Cristobal Balenciaga Museoa herrian egitearen bultzatzaile nagusietako bat hil da berriki. Hubert de Givenchy moda diseinatzaile frantziarra martxoaren 10ean zendu zen, 91 urterekin. Givenchy izen bereko marka ezaguna sortu zuen 1952an, eta sarri aipatu izan du bere ibilbidean Balenciagak izan duen garrantzia; besteak beste, "maisua eta inspiratzaile" gisa egin izan dio erreferentzia diseinatzaile getariarri.

Balenciagarekiko miresmenaren erakusgarri, museoari jostunaren 170 pieza baino gehiago eman zizkion Givenchyk. Bere alde egin duen lanarengatik museoaren fundazioko ohorezko presidente izendatu zuten, eta kargu horretan izan da azken hata eman duen arte. Alabaina, Givenchy ez zen sekula ohorezko kargura mugatu. Horren adibide da Balenciaga Museoan egin den azken aurreko erakusketan jokatu zuen papera: haren zuzendaritzapean antolatzen *Rachel L. Mellon Collection* erakusketa, eta museotik gertu ibili da ahal izan duen artean.



Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T
943 140 143

F

943 140 345

E

info@saiazgetaria.com

W

www.saiazgetaria.com

**OSTOLAZA
TALLERRA**

Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.

Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatalerra@gmail.com



☎ -680880905
☎ -676532067
GETARIA

www.eraberri.com


Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEQ zantakia: 1.100

eskura



fisioterapia zentroa

☎ 697 961 208
Elkano kalea 9, beheha



Ganix Arakistain
OSTEOPATIA
943253634



GIROA T A B E R N A



- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxo goxoen aukera



Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800



ASKZU
KALAKO ENFERMERIA BERRIKUNTZA ZENTROA
ENFERMERIA FAMILIAR BEREZIKUNTZA ZENTROA



**FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINITZA BEREZIAK**

943 83 36 41

www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

TAMAINAK

- 4,3 x 4
- 9 x 4
- 13,6 x 4
- 9 x 8
- 13,6 x 8
- orri erdia

ZENBATEKOA

- 12 euro
- 24 euro
- 36 euro
- 48 euro
- 72 euro
- 96 euro

Elkanoren Lehorreratzeko irizpide berriak

Genero ikuspegia eta zozketa izango dira abuztuaren 7ko Elkanoren Lehorreratzeko parte-hartzaileak aukeratzeko irizpideak. Horrela, pertsona historikoen kasuan generoak mantenduko dira, baina ez antzezlanaren parte direnetan. Ondorioz, edonor izan ahal izango da kontinenteetako ordezkari, lantzari edo karroza laguntzaile. Bestalde, tripulatzaileak, kontinenteetako ordezkariak eta lantzariak zozketaz aukeratuko dira.

Apirilaren 9tik 23ko 13:00etara egin beharko da izen-ematea, udaletxean, turismo bulegoan edo kultura@getaria.org nahiz turismo@getaria.org helbideetan. Zozketa apirilaren 28an izango da, 12:00etan, udaletxeko batzar aretoan



Duela lau urteko Elkanoren Lehorreratzeko.

Sahatsaga kiroldedia berritzeko ituna sinatu dute

Sahatsaga kiroldedia berritzeko obrak egingo dituzte —246.669,90 euroko aurrekontua dute— eta Getariako Udalak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako akordioa sinatu dute. Horren arabera, Aldundiak 131.975,80 euro bideratuko ditu lanetara. Barrualdeko komunak kanpora atera eta aldagelak handituko dituzte; horrekin batera, urtez urte makina berriak jartzea aurreikusten dute.



Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua



Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

2018ko APIRILA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

9-23 Al.-Al.
Elkanoren Lehorreratzean izena-emateko epea
 Ordua: 23ko 13:00ak baino lehen
 Lekua: udaletxea, turismo bulegoa, kultura@getaria.org edo turismo@getaria.org
 Antolatzailea: Getariako Udala

10 Asteartea
XVII. Literatura Lehiaketara lanak aurkezteko epe amaiera
 Ordua: 13:00
 Lekua: udaletxea edo liburutegia
 Antolatzailea: Getariako Udala

12 Osteguna
"Independentismo berrasmatzen" hitzaldia
 Ordua: 19:00
 Lekua: Ulpiano Etxea
 Antolatzailea: Getariako Eskubide Sozialen Karta
 Unai Apaolaza filosofian lizentziaduna, irakasle eta Lapiko Kritikoa kolektiboko kideak emango du.

14 Larunbata
Jolasen tailerra
 Ordua: 12:30
 Lekua: frontoia
 Antolatzailea: Urritza Aisialdi Taldea

19 Osteguna
Txotxongilo sorkuntza tailerra
 Ordua: 17:30
 Lekua: liburutegia
 Lur Usabiagak eskainiko du eta "Patxi errementaria" ipuinean oinarritutakoak izango dira. Bost urteik gorako haurrentzat; Liburuaren Egunaren harira antolatua.

20 Ostirala
XVII. Literatura Lehiaketako sari banaketa
 Ordua: 18:30
 Lekua: udal batzar aretoa
 Antolatzailea: Getariako Udala

Kontzertuak: Iزارo, Nagen eta Marlik
 Ordua: 21:30
 Lekua: Cristobal Balenciaga Museoa
 Antolatzailea: Artzape Euskara Elkarte
 Sarrerak turismo bulegoan edo ticket.kutxabank.es helbidean. Ateak 21:00etan irekiko dira.

22 Igandea
Mendi irteera: Markina-Autzagain
 25,2 kilometroko ibilbidea.

23 Astelehena
Poesia xuxurlatua
 Ordua: 18:00-20:00
 Lekua: liburutegian hasi eta amaituta, kalez kale ibiliko da
 Antolatzailea: Getariako Udala
 Kalabazan Kultur Ekimenak taldearen eskutik, olerkiak interpretatu eta xuxurlatzen ikasiko da. Ahozketasuna eta komunikazio gaitasuna landuko dira.

26 Osteguna
Katukale irakurle taldearen saioa
 Ordua: 18:30
 Lekua: liburutegia
 David Foster Wallacen "Sekula gehiago egingo ez dudana gauza ustez dibertigarri bat" liburua.

"Necropolitics-a vs. Giza eskubideak", hitzaldia

Ordua: 19:00
 Lekua: Alhondiga
 Antolatzailea: Gaztetxea, Elan Euskadi, Getariako Udala eta Getariako Eskubide Sozialen Karta

Elkanoren Lehorreratzeko zozketa
 Ordua: 12:00
 Lekua: udaletxea

29 Igandea
Getariako IV. Triatloia
 Ordua: 11:15
 Antolatzailea: Getaitri Triatloi Kluba
 Antolakuntzan laguntzeko prest dagoen jendea behar du klubak. Prest dagoenak 607325603ra Whatsapp bidali edo getariakotriatloia@gmail.comera idatz dezake.

San Prudentzio jaiak

27 Ostirala
VI. Mus Txapelketa
 Ordua: 22:00

28 Larunbata
San Prudentzio Eguna

- 10:00etan, diana auzoan Gazte Alaia txistulariekin. Meza aurretik San Prudentzioko marxa eta erretreta joko dituzte.
- 11:00etan, meza nagusia
- 12:00etan, herri kirolak. Mikel Lopetegi "Urta" eta

Xabier Peñagarikanoren erakustaldia.

- Gero, Gure Txeru dantza taldearen emanaldia.
- 13:00etan, haurrentzako emanaldia Supituki taldearekin.
- 14:30ean, bertso bazkaria Agin Laburu eta Aitor Sarriegirekin; Uxune Areizaga gai-jartzaile.
- Ondoren, Zumaiko trikitilariak.
- 19:00etan, Nafarjito festa. Auzoko mojito onena, eta La Jodedera taldea.
- Gero, festak jarraituko du.

Cristobal Balenciaga Museoa

"Cristobal Balenciaga. Moda eta ondarea" erakusketa

Guztira 80 pieza egongo dira ikusgai; jantziak eta beste baliabide batzuk izango dira, besteak beste, dokumentazioa, irudiak, objektuak, patrioak, bozetoak eta ehunak.

27-29 Ol.-Ig.

"Goi mailako jostintzako tekniketara hurbilduz", ikastaroa

Ordua: 10:00-19:00
 Balenciaga etxeetan eguneko soinekoak nahiz jai edo ezkongai soinekoak egiteko fantasia-taileretan erabiltzen ziren jostintza-metodo zehatzen erakustaldiak egingo dira. Javier Martinek emango du eskola.

ARTZAPE FEST!



MARLIK
IZARO
NØGEN

APIRILAK 20
CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOAN
15€ SARRERA. SALGAI TURISMO BULEGOAN / ONLINE: ticket.kutxabank.es

OHARRAK
Online erosiz gero kudeaketako gastuak kobratuko dira (+0,90€)
Egunean bertan (sarrerarik balego) 20€